

E.E.- 2026-00264

ALKATETZA DEKRETUA

OINARRIA: 2026ko ekainaren 2an, udal sarrera erregistroan E202602213 inskripzino zenbakiagaz udaleko sarreren erregistro nagusian Down sindromea duten pertsonen laguntzera bideratutako alkartea, Syndrome de Down Fundazioa (IFK: G-48679302; helbidea: Begoñako Andra Mari kalea 12-14 atzekaldea, Bilbo), zeinak diru-laguntzea eskatu eban azaldutako helburua lortzeko asmoz.

OINARRIA: Syndrome de Down daukaten pertsonak dituzten arazo ekonomiko eta sozial handiak direla eta honelako jarduerak oso garrantzitsuak dira.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 67. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Fundación síndrome de Down y otras discapacidades intelectuales del País Vasco Alkarteari (IFK: G-48679302; helbidea: Begoñako Andra Mari kalea 12-14 atzekaldea, Bilbo) 500,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 920-48101 aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- Diru-laguntza hau 2027ko zezeilaren 26a baino lehen justifikauko da, 38/2003 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera agiri honeek aurkeztuta:

- Egindako gastua egiaztetako fakturak.
- Egindako jardueren memoria.

HIRUGARRENA.- Dekretu honek oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzailerak guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka, aukerako izaeraz, berraztertze-errekurtsua aurkez daiteke ebazpena eman duen Alkatearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Hori guztia, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkezteko duen eskubideari kalterik egin gabe.